



HAUR SAHARAR GUZTIAK DAUDE ESKUALDEAN

Bi egun desberdinetan iritsi dira Tolosaldera uda igarotzera etorritako haur sahararrak; irailaren 12a arte egongo dira >2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-07-11

VIII. URTEA 2.049. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Txapelketako partaideak ageri dira gorako familia argazkian. Beheran Bellosori egindako omenaldia. I. TERRADILLOS

IKUSMIN HANDIA HITZA TXAPELKETAKO FINALETAN

TOLOSA Atzo jokatu zituzten pilota lehiaketako azken partidak; Aurrera Saiaz sortzen lagundu zuen Miguel Beloso ere omendu zuten 6-7



Bernardo Atxaga 'Bi anai' filmaren grabaketan. ANDONI CANELLADA-ARGAZKI PRESS

Bernardo Atxagaren 'Bi anai' nobela, zinemara

ASTEASU Imanol Rayo da izen bereko lanaren zuzendaria; euskaraz ari dira filmatzen 4-5



**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK DATORREN
IKASTURTERAKO HIRU
LANPOSTUETARAKO DEIALDIA EGITEN DU**

LANPOSTUAK eta ESKAKIZUNAK

- **Hezkuntza Laguntzaile Espezialista.**
Dagokion titulazioa eta EGA edo baliokidea.
- **Jangelarako langilea.**
Euskara gaitasuna.
- **DBHko teknologiko irakaslea.**
Dagokion titulazioa eta EGA edo baliokidea.

CURRICULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali lanpostua zehaztuz edota ikastolako idazkaritzara
• (ordutegia: 9:00-14:00) ekarri.
• Epea: Uztailak 13 (arratsaldeko ordu-biak).
• Argibide gehiagorako:943-652932.

Desagertzearen liburua XV Udako uharte eta uren kontakizunak



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Udarako egun sargaritsu hauetan, uretan murgiltzen naizen bezala neure memorian sakontzen dut.

Nondik datoz urak, itsasotik zerrura eta handik berriro itsasora...

Nire uharte hau zein materiaz dago egina?

Porturatu nintzen edo kolpe batez hemen agertu?

Nor ari da ate joka nire uharte bazterretako memorian?

Horrela ote dagure bizitza osoa? Akaso gure aldegitze nahiak, deskalabrura eramaten gaitu?

Baina eta bukle batean ba gaude, zergatik kezkatu... azkenean berriro ere bere senera etorriko da.

Ez zen makala izan esaldi hura asmatu zuenak: «itsasoa berbera izan arren, atzokoa eta gaurkoa ez da berdina...»

Esopo Traziako esklaboak ez zuten inoiz bere burua kateetara

saldu eta behin Jantos bere nagusiaren alde asmatu behar izan zuten. Honek desafio batean, itsasoko ur guztiak edango zituela eta bestela bere aberastasun guztiak galduko egingo zituela. Ez ziren ez gutxi izan goizeko hondartza hartan azaldutako greziarrak esandakoa nola beteko zuten ikustera.

Itsas aurrera iritsi zenean nork daki zein izan ziren nagusi gizajo haren pentsamenduak, aberats libere, baino bere burura loturik ezinezko hartan... eta orduan Esoporen buru askeak libratu zuten: esaiezu prest zaudela itsasoko ur guztiak edatera, desafioan esan zenuen bezala baina hori bai, itsaso-

koak eta horretarako bereiztu behar dituzte erreketako uren isuria.

Esopok jokoaren joko egin zuen jakinda ere, gorputzez esklabo bezala jarraitu beharko zuela; akaso buklearen zati bat zen.

Uretan murgildu naizen bakoitzean sentsazio arraro bat suertatzen zait, une batez mundu astun honetan egongo ez banintz bezala eta orduan ametsetako hegan egitea bezala edota txorta jotzearen gailurraren unean bezala, istant batez ez nago hemen... buklea eten da. Desagertzearen beldurrak neure buruko uharte honetara ekarri ninduen Esopo eta Ikaro bezala berea eta hemen neure as-

makizun korapilatsuak. Ezinaren ezina, ezin alde egin sentsazio baretik. Neure burutik hegan irteten zaretzen txorinuak, nora zoazte?

Ideien hegatsak kolore bizitakoak eta luma ederrez estalitakoak dira baina eskuratu ezkeror zorriz jositakoak; horrelakoa izaten dira memoriaren ezustekoak.

Zer ez da ba burua, labirinto bat ezik eta Ikaro zorriz jositako hegalar bat besterik eta gu desagertze horren Dedalo eraikitzaileak Memoriaren itsasoak urak handiak dira, zuk zer diozu Esopo?

Esopo Delfos hiriburuan akatu zuten akusazio faltsu baten ondorioz.

A Asteko irudia



Hemen dira haur sahararrak

TOLOSA • Bi txandatan, goizean eta arratsaldean, iritsi ziren atzo azken ume sahararrak. Ostegunean iritsi zen lehen taldea, eta atzokoarekin amaitu zuten, hortaz, bidaiak. Aurten inoiz baino ume gehiago izango dira Tolosaldean uda igarotzen, 19, zehazki. Lehen egunetan ohiko mediku azterketak egin beharko dituzte, baina ondoren aisialdirako denbora izango dute eta ingurua ere ezagutuko dute Abaltzizketako Larraitzeko abentura parkera joanaz edota suhiltzaileen egoitza ikusiz. 7 eta 12 urte arteko haurrak bi hilabete inguru emango dituzte gurekin eta irailaren 12an bueltatuko dira Saharara. E. MAIZ-R. CALVO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Gu ez gara izango Nafarroako yaakuak

» Iritzia

Jon Bollar
UEMAko lehendakaria, UEMAko zuzendaritza batzordearen izenean.

Keniako ipar-erdialdean, yaakueraz mintzo zirenak bile-ra publiko bat egin zuten, euren etorkizunaz erabakitzeko. Bilera hartan, bi ideia nagusitu ziren: batetik, masaien hizkuntzak eta ohiturek yaakuenak baino prestigio handiagoa zutela, eta, bestetik, masaiara yaakuera baino egokiagoa zela etorkizuneko erronketarako. Bi ideia horietan oinarrituta, yaakuera erabiltzeaz utzi eta aurrerantzean masaiaraz hitz egitea erabaki zuten.

*Lingua navarrorum*aren aurka-hizkuntz politikaren bidez, ematen du Nafarroako Gober-

nuak gauza bera lortu nahi duela euskaldunekin.

Nola ez dugu, bada, hori pentsatuko? Euskarazko hedabideen aurkako neurriak, murrizketak euskara zerbitzuei, Euskararen Plan Estrategikoa bertan behera, funtzionario izateko deialdietan euskararen garrantzia hutsaren hurrenizatea, helduen euskaldunzerako trabak, osasun zerbitzuetako etengabe-ko erdalduntzea, euskarazko irakasteko ereduaren aurkako politikak, euskalgintzako taldeen aurkako erabakiak, euskararen alorreko diru-laguntza politikak, Euskarabidearen bide antzua, euskarari buruzko adierazpen publikoak, Nafarroako Arartekoaren gomendioei muzin egitea...

Fronte asko ditu irekita Nafarroako Gobernuak euskararen eta euskaldunen aurka, gure etsi-

pena handitu eta suizidio linguistikora bultzatzeko.

Erabaki politiko horien aurrean, maiztaren 15ean, Iruñean, milaka lagun elkarretaratu ginen, Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidearen alde. Lelo harenatzen, ez daude norbanakoak bakarrik, kolektibitate osoak daude: seme-alabak euskarazko ikasketara ereduatan matrikulatzen dituzten gurasoak, euskalgintzako taldeak, euskaldunzen ari diren helduak, euskarazko hedabideetan dabilzanak, eta, nola ez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko udalerriak: euskara ofiziala omen den zonaldean euskaldunen gehiengo handi bat duten udalerriak, eta, gainera, euskaraz bizitzeko apustua berresteko, beste herrialdeetako udalerriekin bat egin duten herriak.

Beste modu batean esanda, herri sarreteretan *Euskaraz bizi gara* kartela kokatuta, euskararen gotorleku izaten jarraitu nahi duten udalerriak.

Sarritan, Euskal Herrian euskaraz bizitzen uzten ez digute-nak horma bat bezala ikusten ditugu. Nafarroan ere halaxe ikusi ohi dugu bertako gobernua: iruditzen zaigu haren aurka aritzea horma baten aurka burua jotzen aritzea bezala dela.

Badakigu zertaz ari garenean. UEMAko udalen eragin esparru nagusietako bat administrazioa da. Nafarroako UEMAko udalak egunero ibiltzen dira Nafarroako Gobernuaren hizkuntz estremismoaren ondorioak jasaten, ahozko nahiz idatzizko harremanetan euskarak tokia duela aldarrikatzen ez ezik erabiltzen ere bai, eta halaxe jarraituko dute, euskara-

ren aldeko aldarrikapenik onena euskararen erabilera delako.

Gureak, gure hizkuntz errealtateak eta gure nahiak, tokia izan behar duelako, Nafarroan beste herrialdeetan bezainbeste. Sine-tsita gaudelako Nafarroatik euskara erazteaz Espainiatik gaztelania erazteaz bezain absurdoa eta bidegabea dela.

Eta gaudela alorrez alor erabaki bera hartu dutela euskararen aldeko eragile askok, Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan bezala Nafarroan ere bai.

Eta gaudela guzuztiok garelako bere netako horma. Eta gaudela Nafarroako Gobernuak behin eta berriro gure aurka eginez pitzadurak baino ez dituela egingo. Eta gaudela pitzadurak eginagatik ere ez duela horma botatzea lortuko.

Gu ez garelako Nafarroako yaakuak.

Giro ederra Solana kalean, eguraldiak lagunduta

Azoka » Aranak, kiwiak, lekak, tomateak eta lbarrak piparrak izan ziren, besteren artean, atzoko protagonistak.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animosoa suertatu zen.

Eguraldi beroak asko lagundu

zuen, eta Solana kalean ireki berriak asko lagundu zuen giroa alaitzen.

Eskaintza guztiz udarako izan zen, eta produktu aipagarrien artean aranak eta kiwiak, lekak, tomateak edota lbarrak piparrak jarriko genituzke.

Oso kalitate oneko gibelurdinak eta onddoak
Perretxiko zerrenda ere ez zen

makala izan eta ikusitako gibelurdinak eta onddoak oso kalitate onekoak izan zirela esan dezakegu.

Ziza ere oraindik aukeran dago, baina dagoeneko, garaiak ere horrela agintzen duelako, ziza horia bere tokia hartzen ari da.

Baratzarako landareen postuak Berdura plazan

Berdura plazan ere giro animosoa ikusi genuen, oro har, baina batez ere baratzarako landareen postuetan izan zen giro gehien.

Asko dira baratzara sartu ahal izateko giro ona aprobetxatzen dutenak, eta hori dela eta, salmentak gora egiten dute bolada honetan.

Zurea da hitza

info

'Hamaika telebista ikusi nahi dut' eskutitzari erantzunez

Kaixo Lagun:
Zure kezka erantzun nahian.

LTD legeak esaten du, barruti bakoitzean lau toki telebista ikusi daitezkeela bakarrik.

Toki telebista horiek, bertako edukiak, lantalde propioarekin, ezagutza mailaren pareko euskara erabiliz, bertako egoitza batetik eta abarrekote betebeharrak betez emittitu behar du.

Tolosaldeko barrutian, lehiaketa bidez esleitura, 28 Kanala, Gipuzkoa Telebista, Teledonosti eta Telebilbao-k dauzkagu frekuentzia eskumenak. Ez dago beste toki telebista batentzat lekurik.

Hori bai, 28 Kanala eta Hamaika Telebista taldea elkarlanean ari gara lanean; gure saioak beraien-tan ikusten dira eta beraienak gurean. Elkarlan hitzarmen bat dugu.

Pentsatzen dut, bertako uhin bidezko euskarazko telebista guztiak ikusteko aukerak ari zirela. Momentuz hori ez da posible.

Aukera hori ematen duen baka-

rra Euskaltel bidezko LTD eskaintza da. Hor toki telebista guztiak daude, EAE guztian ikusteko moduan.

Zertxobait argitzeko balio izan badu. Mila esker.

Ion Aldanondo, 28 Kanaleko zuzendaria

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.	Onddoa	30,00	-	Erremolatxa	1,50	2,00
Landareak		Gibelurdina	30,00	-	Tipula	0,80	1,00
Geraneo	2,00	Ziza horia	20,00	-	Azenario	1,20	5,00
Menta	1,50	Fruta					
Zainzuria	2,80	Kiwiak	3,50	-			
Berbena	3,00	Errezil sagarra	2,00	4,00			
Zilantroa	1,50	Barazkiak (sorta)					
BERTAKO PRODUKTUAK		Ziazerba	1,00	-			
Perretxikoak							

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Tolosa.** Tolosako Alde Zaharrean 50 metro karratuko atikoa saltzen dut. Egoera onean dago eta oso argitsua da. Igogailua ere badu. 141.839 eurotan saltzen dut (23.600.000 pezeta). Interesateuek deitu 943-43 00 20 telefono zenbakira. Zuzeneko salmenta.

Tolosako Udala

VOITH-GOROSTIDI EREMUKO ETXEBIZITZA TASATUEI LOTU GABEKO GARAJE PLAZAK

"Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuei lotu gabeko garaje plazak jabetza erregimenean adjudikatze oinarriak" izeneko dokumentuan ezarritako prozedurari jarraituz, hurrengo hau adierazten da: erreserbako zerrendak irekita daudela, eta hortaz, interesaturik dagoenak aukera dauka eskaera egiteko, hain zuzen ere, bakanterik izanez gero, garaje plaza adjudikatze, hartarako eskatzen den dokumentazio osoa aurkezten den ordenaren arabera.

Lagundu Udalbiltzaren kontrako epaiketaren gastuei aurre egiten

DENON ARTIAN

ASKE!

EUSKAL HERRIA

Bai

3035 0071 63 0711 24600



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FINAL BORROKATUAK



Urtero bezala, HITZA Pilota Txapelketako finalek jende ugari erakarri zuten atzokoan. JON MUJICA

» EMAITZAK

Nagusiak

Biaín-Senperena	17
Sukia-E.Galarraga	22

Jubenilak

Santxo-Aretxabaleta	18
Juanenea-Aizpuru	17

Kadeteak

Agirre-Tolosa	18
Goikolea-Iruretagoiena	13

Infantilak

Larrea-Peña	18
Arteaga-Aburuza	17

Alebinak

Mariezkurrena-Zubizarreta	16
Lezea-Karabal	15

Benjaminak

Elizegi-Zabala	2
Aizkorbe-Apezetxea	16

VII. HITZA Pilota Txapelketa » Sei mailetako finalak jokatu zituzten atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan; jende ugari hurbildu zen bertara.

IÑIGO TERRADILLOS

Pilota festa ikusgarriak hartu zuen atzo goizean Tolosako Beotibar pilotalekua. Izan ere, goizean goizetik, VII. HITZA Pilota Txapelketako finalak jokatzeko hasi ziren bertan. Benjaminek hasi etanagusetara, sei final jokatu ziren dena. Horietan nor baino nor aritu zirenak «Euskal Herrian egun maila horietan dauden pilotaririk onenak» bai antolatzaileen bai eta pilotarien arabera. Ikuskizuna, beraz, ziurtaturik zuen pilotazaleak atzokoan Beotibarren. Eta aurreikuspenek ez zuten hutsik egin, partidak zein baino zein erakargarriagoak, ikusgarriagoak eta orekatuagoak izan baitziren.

Apezetxea eta Aizkorbe benjaminak garaiak izan ziren partida azkarra izan zen, euren aurkariak bi tanto baino ez baitzizkieten egin. Gainerakoak oso parekatuak eta emozio handikoak izan ziren. Mariezkurrena-Zubizarreta, Larrea-Peña, Agirre-Tolosa, Santxo-Aretxabaleta eta Sukia-Galarraga izan ziren gainerako txapeladunak.

Jende ugari eta giro polita

Urtero bezala, Beotibar pilotalekua jendez bete zen atzokoan, eta giro polita bizitu zen. Azken partida amaitez, txapeladun eta txapeladunorde guztiek sariak jaso zituzten antolatzaileen eta txapelketa posible egin duten erakunde-etako ordezkarien eskutik. Hala, garaikurrak, HITZA eskualdeko egunkariko saria eta txapelarekin itzuli ziren etxera pilotariak.

Bestalde, familia argazkia egin eta gero, Miguel Beloso omendu nahi izan zuten antolatzaileek, «pilotan egindako lanarengatik».

» ERREAKZIOAK



«Pilotari altuera ematen asmatu egin dut»

Eneko Galarraga

NAGUSIA

Oso kontentu nago. Espero baino izerdi gehiago botata, baina, irabazi egin dugu. Hasieran hankarekin arazo batzuk izan ditut, baina bukaera aldean, batez ere, asmatu egin dut pilotari altuera ematen. Gure aurkariak elkar ezagutzen genituen talde berekoak garelako, eta final zaila espero genuen. Niretzat HITZA txapelketa irabazten dudana lehendabiziko aldia da, beraz, pozik nago.

«Txapelketa oso polita egin dugu oro har»

Alex Sukia

NAGUSIA

Oso pozik nago txapelketa irabazi dugulako. Pilota atzera botatzen asmatu dudala uste dut, baina, pilota arinekin jokatzeko zailagoa izan da. Orokorrean txapelketa osoan Galarraga eta biok ondo moldatu gara, eta txapelketa oso polita egin dugula esan daiteke. Niretzat bigarren aldia da HITZA Pilota Txapelketa irabazten dudana, infaniletan irabazi bainuen orain dela urte batzuk.



«Eskuekin asko sufritu dut partida osoan»

Andoni Aretxabaleta

JUBENILA

Finalean asko sufritu dut eskuekin, baina azkenean irabaztea lortu dugu, beraz, primeran. Txapelketa orekatua izan da; finalerdietan aurkariak ez ziren oso fin aritu, eta guk gure lana egin genuen.

«Bagenekien finala orekatua izango zela»

Xabier Santxo

JUBENILA

Partida hasi baino lehen bagenekien final orekatua izango zela, eta hala izan da. Oso gustura nago garaipenarekin. Txapelketako lehen partida uste baino gogorragoa egin zitzaigun.

Telefonistak/harreragileak

behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40

Gidariak

behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako

zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGARIAK, JANTZIAK, ESKULANGINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA
EROSI GUREAN

www.euskalherriko
PLAZA.com





«Akats ugari egin ditugu finalean»

Xabier Tolosa
KADETEA

Akats gehiegi egin ditugu, eta hasiera nahiko txarra izan dugu. Irabazi egin dugu, eta gustura gaude. Txapelketa oso polita izan da. Lehen aldiz irabazi dut.

«Pixkanaka gora egin dugu, irabazi arte»

Asier Agirre
KADETEA

Gaizki hasi gara, baina pixkanaka gorantz egiten jakin dugu, eta amaierara arte horrela iritsi gara. Oso pozik gaude. Lehen aldiz irabazi dut HITZA Txapelketa.



«Aurkari gogorrek izan ditugu finalean»

Eñaut Larrea
INFANTILA

Aurkari gogorrek izan ditugu finalean, eta berdinduta ibili gara. Txapelkunak gara eta oso pozik nago. Bigarren aldiz irabazi dut HITZA Pilota Txapelketa.

«Txapelketa osoan maila handia egon da»

Jon Ander Peña
INFANTILA

Partida zaila izango zela pentsatzen genuen, eta horrela izan da. Txapelketa osoan maila handia egon da. Hirugarren aldiz irabazi dut txapelketa.



«Oso zaila izan da finala irabaztea»

Iraitz Zubizarreta
ALEBINA

Oso kontentu nago irabazi dugulako. Oso zaila izan da azken partida, eta justu-justu, baina irabazi dugu. Niretzat lehen aldia izan da txapelketa irabazten dudana.

«Txapelketaren amaiera nahiko zaila izan da»

Jon Mariezkurrena
ALEBINA

Aurkariak oso onak dira, eta partida parekatua izan da. Oso pozik nago. Txapelketaren hasiera nahiko erraz joan zen, baina finalerdiko partida nahiko zaila izan zen.



«Aurkariak baino gehiago izan gara»

Antton Apezetxea
BENJAMINA

Aurkariak baino gehiago izan gara, eta ondorioz irabazi egin dugu. Oso pozik gaude. Aurtengo azken txapelketa izan da, eta irabazi dudana laugarrena.

«Oro har txapelketa erraza izan da»

Aitor Aizkorbe
BENJAMINA


Oso ondo jokatu dugu finaleko partida. Oro har, txapelketa erraza izan da, agian, finalurrekoa kentxapelketa izan da, eta irabazten dudana hirugarren txapelketa da hau.



Pilotan eginiko «lan handia» eskertuz

TOLOSA • laz bezala, aurtengo HITZA Pilota Txapelketa sari banaketan omenaldiek ere izan dute tarte. Izan ere, antolatzaileek adierazi dutenez, pilotan lan eskergea egin dutenen lana saritzen saiatuko dira urte-

tik urtera. Aurtengoan Miguel Bellosok eman du aipamena. Aurrera Saiatz pilota elkarteko sortzaileetako bat da Bellosok, eta hunkiturik jaso zuen bere kideek eskaini nahi izan zioten omenaldia. I.T.



Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €



Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €



Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

% 20



Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €



Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €



Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

% 20





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *The good heart* filma Leidor aretoan gaur 19:30ean eta bihar, ikuslearen eguna, 20:30ean.

Deialdiak

■ **Berastegi.** Salontzo jaietxer hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorra burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberi, Urepele biltokia eta Basurde elkartearen 16 eurotan (12 urtetik beherakoek 8 euro).

■ **Alegia.** Uztailaren 15ean, haurren bazkaria egingo da plazan. Txartelak Kultur Etxean daude salgai uztailaren 12ra bitartean. Uztailaren 17an, herri afaria plazan (sagardotegiko menua, 22 euro). Txartelak Jubilatuen, Etxeberria, Hilario-Berri, Kafea, Eizmendi eta Kurpil tabernetan.

■ **Leitza.** I. Korto Lehiaketa. Gaia libre izango da, taldeka nahiz bakarka hartu daiteke parte eta gehienez 15 minutuko film aurkeztu daiteke. Talde bakoitzak gehienez hiru lan desberdin aurkeztu ahal izango ditu, kameraz edo mugikorrez grabatuak eta hauek DVD batean utzi beharko dira, eta kartazal batean sartuta, Ateka-beltz gaztetxeko buzoiean.

■ **Villabona.** *Ahozotasuna kulturaren* jardunaldiak burutuko dira uztailaren 22, 23 eta 24an Subijana Etxean. Izen-ematea uztailaren 16ra arte, 50 eurotan (EHBeko bazkideek eta ikasle eta langabeteek 35 euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikoko arbola, 3. 943 65 10 45.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Esklerosi anizkoitzaren berri ematen

TOLOSA ■ Esklerosi anizkoitzaren alde dirua biltzen aritu ziren atzo goizean Tolosako San Frantzisko pasealekuan, Artxiboaren ondoan, *Busti Zaitz* kanpainaren baitan. Laugarren urtez egiten dute kanpaina eta helburua «herritarrak sentsibilizatzea eta dirua lortzea» dela diote arduradur-

nek. Postuan Kukuxumuxuko produktuak eskuratu ahal ziren gaixotasunaren inguruko informazioarekin batera. Era berean, Usabal igerilekuan ere izan ziren materiala saltzen. Tolosarekin batera, Gipuzkoako beste 13 puntutan ere burutu zuten ekimena. I. TERRADILLOS

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>